

Antxiñako fotografía



Ezkondu aurreko despedidia

Etziran hareik be urte samur-samurrak . Gerra zibilla akabo barri zan eta familixetan ez eguen ugarittasun haundirik. Baiña, hala eta guztiz be, oraintxe letxe, norbait ezkonketan zanian, eztei-ospakizunik etzan falta jeneralian, ezta ezkondu aurreko despedidarik be. Eztaixetara familixa bixetako senidiak, zaharrak eta gaztiak, faten ziren, eta maiorazko-ezkontzaia baldin bazan, auzotarrak be bai. Despedidia, barriz, gazte-jentiendako bakarrik izaten zan. Hori bai, mutillak alde batetik, eta neskek bes-tetik. Garai haretan halako jaixak Oñatiko hainbat taberna-jatetxetan egitten ziran: esaterako, *Cenicero* izenekuan (gerora *Urubil*) Etxalezuko plazatxuan; *Txarridunarenian* Kale Barrixan; edota *Izarran* (*Bujero*) zein *Onarenian* (*Perratzailliena*) Kale Zaharrian.

Gaurko fotografixa **Bixenta Biain**en despedidiari dagokixo. **Murgiko Arretxe**ko alabia zan eta **Larrañako Elordui** baserriko **Euxebio Igartuarekin** ezkondu zan 1940xan. Elorduik, orduan be, bi bizitza eukan: batian Igartuatarrak bizi ziran eta Urzeilata-rrak bestian. Honeik dira, goittik behera eta ezkerretik eskumara, nobixiarekin batera egun horretan alkartu ziran senide eta lagunak:

Goiko illaran: **Rufina Umerez**, Murgiko Umerez baserritik Olabarrietako Meltxiorrenera ezkondu zana; **Petra Guri-di**, Larrañako Uriko Azpikua; **Maria Urzelai** Uriko Garaikua, Kurtze-bideko Martoluenara ezkondu zana; **Jesusa Urze-lai**, Elorduiko joskiña; **Maria Galdos**, Martoluenekua; eta **Maria Igartua**, Elorduikua, Bidaurretara monja fan zana.

Erdiko illaran: **Gregoria Madina**, Larrañako Obixagakua; **Maria Urzelai**, Elorduikua, Murgialdai baserrira ezkondu-takua; **Kandida Agirre**, Larrañako Errekalde baserrikua; **Kontxes Urzelai**, Uriko Garaikua; eta **Marzelina Biain**, Murgiko Arretxe-kua, joskiña.

Behian jazarritta: **Bixenta Biain**, andrageixa; eta **Maria Anjeles Urzelai**, Larrañako Leibar baserrikua, Santa Anara fan zan monja.

J. E.

Argazkixa Alaitz Kortabarriak eskuratu dosku. Argibidiak, barriz, Maria Anjeles Urzelai, Pilar Igartua eta Maixabel Urzelairi zor dostegu. Milla esker danoiri!